

Gizarte eta
Komunikazio
Zientzien Fakultatea

PLAN ESTRATEGIKOA 2022/2026

www.ehu.eus/gkz-csc

Dokumentu hau da Gizarte
eta Komunikazio Zientzien
Fakultatearen 2022-2026 urteetarako
Plan Estrategikoa.

Edukien taula

01 Sarrera

⟨4⟩

02 Metodologia

⟨5⟩

03 Egitekoa

⟨7⟩

04 Ikuspegia

⟨8⟩

05 Balioak

⟨10⟩

06 Estrategia

Ardatz estrategikoak

Zeharkako ardatzak

1. Ardatz estrategikoa. Prestakuntza eta ikerketa

2. Ardatz estrategikoa. Pertsonak eta komunitatea

3. Ardatz estrategikoa. Gobernantza

4. Ardatz estrategikoa. Ingurunea eta gizartea

⟨11⟩

Dokumentu hau da Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen (GKZ, aurreratzean) **2022-2026 urteetarako Plan Estrategikoa**. Fakultatearen hirugarren plan estrategikoa da eta helburutzat du kalitatean eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako kudeaketa ildoak sendotzea.

Dokumentuak deskribatu egiten ditu bai ikastegiaren gogoeta estrategikoa egiteko erabilitako prozesua bai haren etapetatik atera diren ondorioak.

GKZk 2026rako bete nahi dituen helburuak jaso dira, helburu horiek betetzeko egokientzat jotzen diren estrategia, ekintza eta proiektuekin batera. Argi eta garbi zehazten da fakultateak aurrera begira egin nahi duen ibilbidea, nabarmenduz ikastegiaren interes taldeentzat urrats garrantzitsuak izango direnak.

GKZko Dekano Taldea arduratu da gogoeta estrategikoa egiteaz, eta **hainbat interes talderen ordezkarien laguntza izan** du zeregin horretan, dagozkion ataletan azaltzen den moduan.



METODOLOGIA



Fakultatearen zuzendaritza taldea buru izan da Plan Estrategiko hau egiteko prozesuan, eta UPV/EHUko Kalitate eta Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzuaren (KEIZ) babesa izan du, bereziki interes taldeen iritzia jasotzeko ekintzak eta ardatz estrategikoak definitzeko orduan.

Zuzendaritza taldearen barruan, **lantalde** berezi bat sortu da planaren garapena zuzentzeko.

LANTALDEA

- › Dekanoa
- › Administrazio burua
- › Kalitate eta plangintza estrategikoko dekanordea
- › Azpiegituren dekanordea
- › Ikastegiko teknikaria

UPV/EHUko Kalitate
eta Ebaluazio
Instituzionalerako
Zerbitzua (KEIZ)

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da plan honek aurrekoei dagokienez dakarren **denbora planifikazio aldaketa**. Plan estrategiko hau epe akademikoetan oinarriko da, ez urte naturaletan, orain arte egin ohi zen moduan, helburua izanik kudeaketa lana egokitzea egutegi akademikora.

Aldaketa horren ondorioz, atzeratu egin da plana martxan jartzeko data, hilabete batzuk, 2022/2023 ikasturtera arte. Gainera, aldaketak aukera eman du **hobeto lerrokatzeko UPV/EHUren estrategia orokorrarekin**. Unibertsitatearen plan estrategikoa aztergai izan da 2022ko lehen hilabeteetan, eta maiatzaren 24an onartu zen azkenik. Horrela, fakultatearen zuzendaritza taldeko hainbat kide UPV/EHUren lantaldeetan aritu dira unibertsitatearen ardatz estrategikoak zehazten.

PLANAREN IDAZKETA - FASEAK

- 1. Barne diagnostikoa:** fakultatearen zuzendaritza taldeak aztergai izan ditu indarrean dagoen plan estrategikoaren bilakaera eta betetze maila, aurrera begira zer ekintzarekin jarraitu erabakitzeko.
- 2. Kanpo diagnostikoa:** aztertu dira, alde batetik, UPV/EHUren plan estrategikoa, datozen urteetako jardura zer arlo estrategikotan garatu zehazteko; bestetik, UPV/EHUko beste ikastegi batzuen eta kudeaketa mailan erreferenteak diren beste hezkuntza erakunde batzuen plan estrategikoak.
- 3. Lerro estrategikoen definizioa:** lerro estrategikoak jaso dituen oinarritzko lan dokumentu bat sortzea, interes taldeekin partekatzeke.
4. Informazio bilketa eta ikastegiaren interes taldeen ekarpena aztertzea (ikus taula).
5. Egitekoa, Ikuspegia eta Balioak idaztea.
6. Plan estrategikoaren zirriborroa idaztea.
7. Plan estrategikoa aurkeztea fakultatearen Kalitate Batzordeari.
8. Plan estrategikoaren zirriborroa zabaltzea interes taldeetara.
9. Jasotako proposamenak aztertzea eta planean sartzea.
10. Plan estrategikoa Fakultateko Batzarrean aurkeztu eta onartzea

INTERES TALDEEN INFORMAZIOA BILTzea

Ikasleen Kontseilua	Bilera
Graduko ikasleak	5 eztabaida talde, gradu bakoitzeko ikasleekin
IRI	2 irakasle talde
Graduko Batzordeak	Bilerak graduko batzorde bakoitzarekin
AZP	Eztabaida taldea AZPko langileekin
Enplegatzaileak	Eztabaida taldea enplegatzaileekin
Berdintasun Batzordea	Bilerak Berdintasun Batzordearekin
Jasangarritasun Batzordea	Bilera Ingurumen Hobekuntzako Lantaldearekin
Euskara Batzordea	Bilerak Euskara Batzordearekin
Nazioarteko Batzordea	Bilerak Nazioarteko Batzordearekin
Kalitate Batzordea	Bilerak Kalitate Batzordearekin



Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea UPV/EHUko ikastegi bat da, egitekotzat duena jakintza sortzea, garatzea eta transmititzea, Gizarte eta Komunikazio Zientziekin zerikusia duten alorretan.

Fakultatearen ardura da profesionalen prestakuntza integrala, espiritu kritikoa eta gizarte erantzukizuna izango duten profesionalak sortzea, gai izango direnak aldaketako agenteak izateko, garapen prozesuetan eragiteko eta gizarte ongizatea sustatzeko, ikastegiak jakintzaren alorrean dituen bi eremuetan: gizarte zientziak eta komunikazioa.

Helburu horiek betetzeko, ezinbestekoa da:

- › Bultzada ematea hezkuntza berrikuntzari, berrikuntza teknologikoari eta fakultatearekin harremanetan dauden enpresekiko konpromisoari (enpresa publiko eta pribatuak).
- › Ikasleengandik hurbil egotea eta haien prestakuntza ibilbidean laguntzea, kualifikazio handiko irakasleekin, etengabeko prestakuntzan daudenak.
- › Maila goreneko instalazioak eta baliabide teknologikoak edukitzea.



IKUSPEGIA

8

FAKULTATEAREN NAHIA DA...

...IKASLEEK...

... GKZ ikastegi bikaintzat hartzea, gizartearen premietara egokitzen den prestakuntza integrala eskaintzeagatik Gizarte eta Komunikazio Zientzien ikasketen alorrean.

...AZP/IRI...

... GKZ ikastegi bikaintzat hartzea, lan egiteko eta maila pertsonalean eta profesionalean aurrera egiteko.

...ENPLEGATZAILEEK (enpresak, ikastetxeak, instituzioak, erakundeak oro har)...

... GKZ ikastegi bikaintzat hartzea, irakaskuntzaren kalitateagatik, profesionalean prestakuntza optimoagatik eta ikerketan erreferentziazko zentro izateagatik.



...GIZARTEAK ...

... GKZ ikastegi prestigidun, moderno eta berritzailatzat hartzea, euskararekin konprometitua, giza eta kultura balioak transmititzen dituen, gizarte eskakizunekin lerrokatuta.

...UPV/EHUren eta beste unibertsitate batzuen...

... aitortza jasotzea, erreferente gisa kudeaketa aurreratuan eta bere jakintza arloei lotutako gaitan.

...ZIENTZIA ETA IKERKETA KOMUNITATEAREN...

... aitortza jasotzea, bere ikerketa jardueraren kalitateagatik eta ikerketa emaitzen zabalkundeagatik.

BALIOAK

ЕКИМЕНА, СОРМЕНА ЕТА БЕРРИКУНТЗА

Prestasuna eta borondatea desafio berriak onartzeko, horiek praktikara eramateko eta errealitatea eraldatzen eta hobetzen erabiltzeko.

МАЛГУТАСУНА ЕТА ЕГОКИТЗЕКО ГАИТАСУНА

Prestasuna rol berriak betetzeko, errutinak aldatzeko edo ingurunean sortutako premia eta desafio berriei erantzuteko prozedurak onartzeko.

КОНПРОМИСО ЕТИКОА ЕТА ОСОТАСУНА

Gaitasuna betebeharrak profesionalak onartzeko eta betetzeko, denon interesari begira, komunitatearen eta gizartearen zerbitzura dagoen unibertsitate publiko baten ikuspegitik, berdintasun, inklusio eta jasangarritasun balioak defendatuz.

ЕРАНТЗУНКИДЕТАСУНА ЕТА КИДЕ ИЗАТЕАРЕН СЕНТИМЕНДУА

Prestasuna eta borondatea beste pertsona edo talde batzuekin lan egiteko, denon helburuak betetzeko, berezko izaera duen fakultate eta unibertsitate batetik, haren interesak defendatuz eta haren proiektuak, lorpenak eta balioak partekatuz.

ПРОФЕСИОНАЛТАСУНА ЕТА БИКАИНАСУНА

Lanbidean aritzea ahalik eta interes, zorroztasun eta erantzukizun handienaz, efikazia eta efizientzia irizpideak erabilita. Erabaki eta jarduera guztien helburua bikaintasuna izan dadin saiatzea, era optimoan erabilita eskura dauden baliabideak.

ГАРДЕНТАСУНА ЕТА ХУРБИЛТАСУНА

Prestasuna informazioa eta jakintza konfiantzaz eta hurbiltasunez partekatzeko eta komunikatzeko.

A group of four female students are gathered around a table, focused on a laptop. One student is pointing at the screen while the others look on. In the background, a large screen displays various data visualizations, including bar and line charts. The setting appears to be a modern academic or research environment.

ESTRATEGIA

11

ARDATZ
ESTRATEGIKOAK

ZENTROKO
JARDUERA

ZEHARKAKO
ARDATZAK

Fakultatearen plan estrategikoa bat dator UPV/EHUK 2022-2025 aldirako definitutakoarekin.

Plana ardatz estrategikoen eta zeharkako ardatzen bidez egituratzen da, eta ardatz horietan hainbat helburu planteatzen dira. Ardatz estrategikoek zentroaren jarduera-eremu nagusiak mugatzen dituzte, eta zeharkakoek, berriz, Fakultatearen funtzionamendu osoan dauden eraldaketa-elementuak.



Prestakuntza eta ikerketa



Ardatz estrategiko honen xedea da fakultatearen jarduera nagusia -graduoen eta graduondokoen eskaintza- hobetzea, baita ikerketa jarduera ere. Ikerketa jarduerari dagokionez, haren kudeaketa Ikerketaren arloko Errektoreordetzari dagokio neurri handi batean, eta ikastegiaren zeregin nagusia da kudeaketa horretan laguntzea.

13

Pertsonak eta komunitatea



Ikastegiaren jardun eremuaren barruan, planaren helburua da pertsonak beren zeregin profesionalean dituzten baldintzak hobetzen laguntzea. Ekintzen helburuak dira ibilbide profesionalak hobetzea, eginiko lana aitortzea, eta fakultateko kide izatearen sentimendua eta haren jarduerarekiko konpromisoa sortzea.

Gobernantza



Plan estrategikoaren xedea da aurreko planen ibilbideari jarraitzea eta azken urteetan eginiko ebaluazio eta hobekuntza prozesuetan sakontzea.

Ingurunea eta gizartea



Planak tresna eraginkor izan nahi du fakultatea aktore aktibo izan dadin gizartearen premia, desafio eta arazo nagusien irtenbidean, 2030 agendaren esparruaren barruan.



Nazioartekotzea



Fakultatearen helburu nagusia da graduen nazioartekotzearen aldeko apustua finkatzea, baita ikerketan ere, hainbat ekintza eta proposamen bultzatuta mugikortasunaren alorrean.


Berrikuntza, kalitatea eta etika

15



Azken urteetan ikastegiak kalitatean eta hobekuntzan hartu duen konpromisoari jarraiki, alor hau zeharkako helburu gisa planteatzen da, fakultatearen jarduera osora zabalik. Fakultateak zentroaren balioak definitzen dituzten printzipio etikoen barruan garatuko du bere jarduera.

Baliabideak eta azpiegiturak



Ardatz honen barnean, helburua da beren jarduerarako behar dituzten baliabideak ematea ardatz estrategikoen ekintzei.

Komunikazioa



Aintzat harturik UPV/EHUtik marraztutako plana eta kudeaketa alorrean jasotako ebaluazioak, zeharkako ardatzat hartzen da komunikazioa, hobetzeko bai ikastegi barneko komunikazioa bai ikastegiaren proiektzioa gizartean.

Euskara eta GJH




Zeharkako ardatz honen xedea da GJHak eta euskara ikastegiaren jardueraren parte izatea arlo guztietan. Helburua da euskara sendotzea, fakultatearen hizkuntza gisa, eta garapen jasangarriarako helburuen alde egitea, UPV/EHUK 2030 agendan hartutako konpromisoari jarraituz.



1. HELBURUA

1. Graduoko eskaintza finkatzea



2. HELBURUA

2. Graduondoko eskaintza hobetzea



Ekintzak

1.1. Prestakuntza DUALa mantentzea graduen ibilbidean.

- › **Adierazlea:** Ibilbide DUALeko ikasle eskaera (Urtekoa)
- › **Helburua:** Plaza DUALen eskaintza betetzea

1.2. Fakultatearen eskaintza gizartearen eskaerara egokitzeari buruzko gogoeta (aldaketa demografikoa/publiko berriak).

- › **Mugarria:** Eskaeraren bilakaerari buruzko diagnos-tikoa egitea. (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

1.3. Ikasketa plan berriak eta gradu bikoitzak guztiz hedatzea.

- › **Adierazlea:** Gradu bikoitzetako ikasle eskaera (Urtekoa)
- › **Helburua:** Gradu bikotza plazen eskaintza betetzea.

Ekintzak

2.1. Ikastegiaren masterren eskaera aztertzea aintzat harturik ikasleen profila.

- › **Adierazlea:** (Urtekoa)
 - Graduondoko tituluen okupazioa
 - Graduondoko tituluen egokitasuna
- › **Helburua:** %100

2.2. Bultzada graduondoko eskaintza hobetzeari.

- › **Mugarria:** Titulu berriak edo aldaketak graduondoko tituluetan (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

2.3. Mundu profesionaletik datorren ikasle kopurua handitzea graduondokoetan.

- › **Adierazlea:** Matrikula unean aktibo dauden ikasleen adierazlea (Urtekoa)
- › **Helburua:** Ikasle aktibo kopurua handitzea

3. HELBURUA

3. Bultzada ikerketa lanari



Ekintzak

3.1. Ikastegiko ikerketa lanaren proiektzioa hobetzea.

- › **Mugarria:** Urteko ikerketa memoria argitaratzea eta ikerketa atala eguneratzea (Urtekoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

3.2. Master eta doktorego ikasleak fakultateko ikertaldeekin konektatzeko ekintzak garatzea .

- › **Adierazlea:** Ikertaldeen lan lerroen aurkezpen kopurua master ikasleei. (Urtekoa)
- › **Helburua:** 4

3.3. Fakultateko ikerketa lana erraztea baliabideak eta azpiegiturak egokituta, ikertaldeen premiei erantzuteko.

- › **Mugarria:** Espazioak erabiltzeko protokolo bat sortzea (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

3.4. Ikerketa gaitasuna hobetzeko prestakuntza ekintzak.

- › **Adierazlea:** Ikerketa gaitasuna hobetzeko eskaintako ikastaro kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 3

4. HELBURUA

4. Ikasleen enplegagarritasuna hobetzea

Ekintzak

4.1. Ibilbide DUALaren erabateko hedapena.

- › **Mugarria:** Ibilbide DUALaren garapena burutzea ibilbide hori abian den bost graduetan (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

4.2. Laneratze gaitasunak sustatzea.

- › **Adierazlea:** Ingurune profesional batera egokitzeko gaitasunak hobetzeko jarduerak (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

4.3. Lan merkaturako gaitasunak garatzeko prestakuntza osagarria.


- › **Adierazlea:** Ingurune profesionalak eskatzen dituen gaitasun berriak hobetzeko ikastaro kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 10

4.4. Ekintzailatza gaitasuna hobetzea (ZITEK).

- › **Adierazlea:** Ekintzailatza gaitasuna hobetzeko ikastaro kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 1

5. HELBURUA

5. Bultzada nazioartekotzeari irakaskuntzan eta ikerketa lanean dauden sareen bitartez (Erasmus+, Latinoamerika eta Beste Norakoak)



Ekintzak

5.1. Mugikortasun modu berriak aprobetxatzea (Enlighth) (Blended Intensive Programs: master).

- › **Mugarria:** BIP programa pilotu berri bat garatzea (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

5.2. UNIBASQ nazioartekotze zigiluak lortzea graduako titulu guztietan.

- › **Adierazlea:** Zigilua duen gradu kopurua (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** 5

5.3. Antzeko arloetako fakultateetako ikasleen trukea sustatzea, Enlight partzuergoaren barruan.

- › **Adierazlea:** Enlight partzuergoaren barruan, unibertsitateak beste ikastegi batzuekin dituen alde biko akordioen kopurua (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** 7

5.4. Eskaintza eleanitza sendotzea.

- › **Adierazlea:**
 - Beste hizkuntzetan emandako irakasgai kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** % 20, beste hizkuntzetan emandako irakasgaiak (Graduko)
- › **Adierazlea:**
 - Ingelesez emandako GRAL kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 3

5.5. Bultzada ikastegiari nazioarteko mugikortasun programetan dauden irakasleak erakartzeko (ingeleseko irakasgaiak)

- › **Adierazlea:** Truke programen bidez ikastegira bisitan datorren irakasle kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 2

6. HELBURUA

6. Irakaskuntza berrikuntza



20

Ekintzak

6.1. Irakasleen inplikazioa areagotzea irakaskuntza berrikuntzako programetan, arreta berezia jarritz GJHak kontuan hartzen dituztenetan.

- › **Adierazlea:** Ikastegian zuzendutako IKD 3 proiektu kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 3

6.2. Irakasleen gaitasuna hobetzea.

- › **Adierazlea:** Ikastegiak eskainitako ikastaro kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 8

6.3. Instalazioak egokitzea irakaskuntza berrikuntzarako.

- › **Mugarria:** Irakasteko balio anitzeko espazioak sortzea (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

6.4. Metodologia aktiboek irakasgaietan duten inplementazio maila ebaluatzea.

- › **Adierazlea:** Docentiaz programaz ebaluatutako irakasle % (Urtekoa)
- › **Helburua:** %60

7. HELBURUA

7. Bultzada euskarari irakaskuntzan eta ikerketa lanean



Ekintzak

7.1. Bultzada irakaskuntza materialak euskaraz sortu eta argitaratzeari (openware)

- › **Adierazlea:** Irakaskuntza materialen deialdietan euskaraz argitaratutako material kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 2


7.2. Bultzada euskaraz eginiko ikerketa transferentziari.

- › **Adierazlea:** Euskaraz aurkeztutako GRAL % (Urtekoa)
- › **Helburua:** %40




1. HELBURUA

1. AZP eta IRIen karrera profesionala sustatzea



2. HELBURUA

2. Inplikazioa eta kidea izatearen sentimendua



Ekintzak

1.1. Prestakuntza osagarriko ikastaroak garatzea, aintzat harturik ikastegiko IRIen premiak (irakaskuntzaren berrikuntza, ikerketa eta irakaskuntzaren eta ikerketaren alderdi etikoak).

› **Adierazlea:** Ikastaro kopurua (Urtekoa)

› **Helburua:** 8

1.2. Prestakuntza osagarriko ikastaroak garatzea, aintzat harturik ikastegiko AZPko langileen premiak.

› **Adierazlea:** Ikastaro kopurua (Urtekoa)

› **Helburua:** 2

Ekintzak


2.1. Pertsonen aitortza IRI/AZP/ikasleak/kanpokoak (enpresak).

› **Adierazlea:** Aitortza ekintza kopurua (Urtekoa)

› **Helburua:** 3

3. HELBURUA

3. Lan giro egokia sustatzea



4. HELBURUA

4. Tutoretza ekintza plana garatzea

Ekintzak

3.1. Pertsonen beharrak detektatzea.

- › **Adierazlea:** Lan giroa hobetzeko buruzko informazioa jasotzeko ekintza kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 2

Ekintzak

4.1. Ikasgeletan koordinazioaz arduratzen diren pertsonen aurkezpena.

- › **Mugarria:** Ikasturteko aurkezpenak egitea (Urtekoa)
- › **Helburua:** Irakaskuntza talde guztietan egitea

4.2. Buddy programan parte hartzea handitzea.

- › **Adierazlea:** Buddie kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 100

4.3. Unibertsitatearen Entzute Aktiboko Sarean parte hartzea .

- › **Mugarria:** Entzute Aktiboko Sarean parte hartzea (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

4.4. Ikasleak inplikatzeko ikastegiaren curriculumez kanpoko jardueretan.

- › **Mugarria:** Martxan jartzea GKZ ibilbidea (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

5. HELBURUA

5. Bizikidetza, pertsonen zentzu zibikoa eta azpiegiturak



Ekintzak

5.1. Jardunbide egokiak sustatzea fakultateko kideen artean, instalazioen zaintzari eta haien erabilera egokiari begira.

› **Mugarria:** Jardunbide egokiak dokumentua sortzea (Plan estrategikoa)

› **Helburua:** Gauzatzea

5.2. Ikastegiko kideak sentsibilizatzea guztienak diren ondasunen zaintzaren inguruan.

› **Mugarria:** Sentsibilizazio kanpaina (Plan estrategikoa)

› **Helburua:** Gauzatzea

6. HELBURUA

6. Euskararen erabilera sustatzea ikastegiaren jardura osoan



Ekintzak

6.1. Euskararen erabilerari lotutako jardunbide egokiak aztertzea.


› **Mugarria:** Egikaritzea (Plan estrategikoa)

› **Helburua:** Gauzatzea



1. HELBURUA

1. Prozedurak sinplifikatzea kudeaketa ekintzetan (digitalizazioa)



Ekintzak

1.1. Administrazio izapideen funtzionamendua aztertzea, haien sinplifikazioa baloratzeko (digitalizazioa).

› **Mugarria:** Txostena: informazio bilketa, zerbitzuei buruzko galdetgia eta horiek digitalizatzeko aukera (Plan estrategikoa)

› **Helburua:** Gauzatzea


1.2. KBBSren egitura aztertzea, haren optimizazioari begira, eta adierazleen eta itemen balioa berrikustea interes taldeen iritzi bilketan.

› **Mugarria:** KBBS aldatzea (Plan estrategikoa)

› **Helburua:** Gauzatzea

2. HELBURUA

2. Beste iturri batzuetako informazio bilketa sistematizatzea



Ekintzak

2.1. Beste unibertsitate batzuen kudeaketa adierazleak sartzea.

› **Mugarria:** Fakultateko graduen egoerari buruzko txostena, jakintza arloko ikastegiekin alderatuta (Plan estrategikoa)

› **Helburua:** Gauzatzea

2.2. Graduondoko laneratze datuak lortzea egresatuei eginiko inkestaren bidez.

› **Mugarria:** Graduondoko egresatuen inkesta aldatzea, haien laneratzeari buruzko informazioa lortzeko (Plan estrategikoa)

› **Helburua:** Gauzatzea

3. HELBURUA

3. Kalitate politika finkatzea eta hedatzea




Ekintzak

3.1. Interes taldeek hobeto jakitea zeintzuk diren ikastegiaren helburuak.

- › **Adierazlea:** Interes taldeei ikastegiaren kudeaketa politika ezagutarazteko ekintza kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

4. HELBURUA

4. Koordinazio kultura



Ekintzak

4.1. Koordinazioari lotutako prozedurak hobetzea.


- › **Mugarria:** Gida bat sortzea hainbat koordinazio mailatan aritzeko (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

4.2. Pertsonen txandaketa bultzatzea koordinazioan eta ikastegiko batzordeetan.

- › **Adierazlea:** Batzordeetako aldaketa ehunekoa.
- › **Helburua:** Urtekoa

5. HELBURUA

5. Ikastegiko batzordeen funtzionamendua aktibatzea



Ekintzak

5.1. Ikastegiko batzordeen jardueran laguntzea eta haien ekintzak ezagutaraztea fakultateko kide guztiei.

- › **Adierazlea:** Ikastegiak babestutako batzordeen ekintza kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 4

6. HELBURUA

6. Graduak eta graduondokoak kudeatzeko prozedurak hobetzea



Ekintzak

6.1. Fakultatearen graduondokoen webguneetako informazioa hobetzea.

- › **Mugarria:** Masterren kudeaketaren jarduera eta erantzukizunei buruzko erreferentziako dokumentu bat sortzea (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

6.2. Kudeaketa eta komunikazioa hobetzea graduondokoen administrazio prozeduretan.

- › **Mugarria:** Masterren kudeaketaren jarduera eta erantzukizunei buruzko erreferentziako dokumentu bat sortzea (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea
- › **Mugarria:** Gradu eta graduondoko FAQ webgunean (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

7. HELBURUA

7. Fakultateko langileen lidergoa sustatzea



Ekintzak

7.1. Emakumeen lidergoa sustatzea.

- › **Adierazlea:** AKADEMEEn parte hartzen duen pertsona kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 1

7.2. Lidergorako gaitasuna hobetzea.

- › **Adierazlea:** Prestakuntza jarduerak lidergoan (Urtekoa)
- › **Helburua:** 1


7.3. Prestakuntza/dinamizazioa lidergoan genero ikuspegitik.

- › **Mugarria:** Emakumeen lidergoa sustatzeko jarduerak antolatzea (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

27

8. HELBURUA

8. Komunikazio Plana




Ekintzak

8.1. Barne eta kanpo komunikazio plan bat definitzea eta ezartzea.

- › **Mugarria:** Komunikazio Plana (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

9. HELBURUA

9. Kanpoko ebaluazioen gomendioak betetzea (BIKAIN, KAE)



28

Ekintzak

9.1. Kudeaketaren garapena mantentzea Kudeaketa Aurreratuko Ereduan eta BIKAIN eremuan .

- › **Mugarria:** Ikastegiak kudeaketa arloan jaso dituen ebaluazioen gomendio nagusiak aplikatzea (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

10. HELBURUA

10. Euskara ikastegiko lan hizkuntza gisa indartzen jarraitzea



Ekintzak


10.1. Ikastegian euskara erabiltzeko protokoloa bat berrikustea eta zabaltzea.

- › **Mugarria:** Protokoloa zabaltzea (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea



1. HELBURUA

1. Bultzada gizartearen premia, desafio eta arazoei lotutako ekintzei.



Ekintzak

1.1. Lankidetza egitasmo "solidarioekin" /Lankidetza ikastegiaren interes taldeekin.

- › **Adierazlea:** Ikastegiak babestutako ekintza kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 3

1.2. Egitasmo "solidarioen" zabalkundea /Lankidetza ikastegiaren interes taldeekin.

- › **Adierazlea:** Nikastegiak hedatutako ekintza kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 10

1.3. Bultzada ikastegiak hirugarren gizarte sektorean dituen aliantzei, prestakuntzaren eta ikerketaren alorretan.


- › **Adierazlea:** Hirugarren gizarte sektoreko erakundee-kiko akordio kopurua, ikerketa edo transferentzia jarduerak garatzeko (Urtekoa)
- › **Helburua:** 5
- › **Adierazlea:** Hirugarren sektoreko enpresekin sinatutako hezkuntza lankidetzarako hitzarmen kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 15
- › **Adierazlea:** Gizartearen premia, desafio eta arazoei lotutako GRAL eta MAL kopurua (Agenda 2030) (Urtekoa)
- › **Helburua:** 20%

1.4. Ikasleen parte hartzea sustatzea UPV/EHUK antolatutako kirol jarduera eta taldeetan.

- › **Adierazlea:** Osasuna eta kirola sustatzeko ekintza kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 1

2. HELBURUA

2. Bultzada euskararen erabilerari eta euskal kulturari ikastegiaren jarduera guztietan



30


Ekintzak

2.1. Euskararen erabilera sustatzea ikastegiaren jardueretan.

- › **Adierazlea:** Euskara sustatzeko ekintzak (Urtekoa)
- › **Helburua:** 2

3. HELBURUA

3. Bultzada berdintasuna garatzeko jardueri



Ekintzak

3.1. Ikastegiaren Berdintasun Batzordearen jarduerak sustatzea.

- › **Adierazlea:** Berdintasuna sustatzeko ekintza kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 2

3.2. Berdintasun irizpideak mantentzea ikastegia kudeatzeko organoen osaeran.


- › **Mugarria:** Ikastegia kudeatzeko organoen osaera berrikustea (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

3.3. Berdintasunari buruzko diagnostiko bat egitea ikastegiko ikerketa, irakaskuntza eta kudeaketa alorretan.

- › **Mugarria:** Diagnostikoa egitea (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

4. HELBURUA

4. Lankidetza sareak eta lanbide eta gizarte inguru-nearekiko aliantzak sustatzea



Ekintzak

4.1. Lankidetza akordioak sustatzea elkarte edo erakunde profesionalekin, ikastegiaren eta sare profesional/enpresarialaren arteko harremana hobetzeko.

- › **Adierazlea:** Erakundeekiko lankidetza akordio kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 400

4.2. Unibertsitate-Enpresa/Entitate ikasgela bat sortzea.


- › **Mugarria:** Unibertsitate-Enpresa/Entitate ikasgela bat sortzea (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

4.3. Fakultatearen eta enpresen/erakundearen arteko elkarrikerria sustatzea, foro baten bidez.

- › **Mugarria:** Enpresak eta erakundeak erakarriko dituzten jarduerak antolatzea (graduazio ekitaldiak) (Urtekoa)
- › **Helburua:** 1

5. HELBURUA

5. Jasangarritasuna sustatzea ikastegiaren jardueran



Ekintzak

5.1. Ingurumen Hobekuntzarako plan bat egitea.


- › **Adierazlea:** Ingurumena hobetzeko plana (Urtekoa)
- › **Helburua:** 1

5.2. Jasangarritasunaren inguruan komunikazio kanpainak burutzea.

- › **Adierazlea:** Ekintza kopurua (Urtekoa)
- › **Helburua:** 1

6. HELBURUA

6. Ikastegiaren komunikazioa eta jardueraren proiektzioa hobetzea: fakultatea gizartean



Ekintzak

6.1. Ikastegiaren jarduerak gizartean duen inpaktua neurtzea.

- › **Mugarria:** Fakultateak komunikabideetan duen presentziari buruzko txostena (Plan estrategikoa)
- › **Helburua:** Gauzatzea

